

B

BARREN

TOKIKOM

Aran bailararen edertasunak harrapatuta

Olaiz Txurruka



XXI. MENDEKO EUSKALDUNON ELKARTEAK KONGRESUA

BILBON
2011KO
OTSAILAREN
26AN

Etorri nahi al duzu BILBORA euskara elkarteen mugimenduan mugarría izango den Kongresu-Jaian parte hartzera?

Euskara elkarteen oinarriparrak erabakiko ditugu, eta, gainera, ondo pasako dugu.

ALHONDEGIAN

10:00-14:00 Kongresua

KAFE ANTZOKIAN

15:00 Bazkaria

19:00 Jai-ekitaldia

Debabarrenetik autobusa antolatuko dugu. Izena emateko azken eguna: otsailak 9, asteazkena.



ZEZEN-BIDE



AUTO ESKOLA

Autorako B agiri teorikoa **18 urte bete baino lehen** eskura dezakezu!

Ordenagailu bidez teoria ikasteko gela berria!



ORDUTEGIA

10:00etatik-12:30era

15:00etatik-20:30era

LEKUALDAKETA
San Frantzisko, 52 behea

Tel. 943 742 720
20870 ELGOIBAR

- Euskarazko eta gaztelarazko klaseak
- Credikutxarekin ordaintzeko erraztasunak

86 urte

86 urte. Bai, aittitta, akordatzen zera Ermutik etorri eta Barrutianian lagun taldiakin egindako merixendia zala-eta Elgoibarko kaliak kantuz zeharkatzen hasi ziñatenekua? Eta gero aittak eta Santik nola jarraitu zeben? Bai, urte asko pasatu dira, eta gauzak asko aldatu dira. Kostako jatzun gaurko Elgoibar ezagutzia. Herrixa asko hazi da, auzuak zabaldu dira, gizartiar buruz zer esan... Bai, gauzak asko aldatu dira, baiña guk hor jarraitzen dogu, zuek hasittako ohittuari jarraituz. Aurten, Santa Ageda egunakin urtengo gera kalera, zapatuetako gure urteroko konpromisua betez. 31 urte beteko dira Kepak zure testigua hartu zabanetik !

Nik uste dot zuek ere gurekin zaoztela egun honetan, edo guk behintzat zuen presentzia igartzen dogu. Badakizue zuen lagun askok fin-fin jarraitzen debela (aurten Arrioren falta nabarittuko dogu), eta urtero-urtero kale egin barik zita hau egutegixan markauta daukela, baiña beste lagun berri asko ere animatzen dira gurekin kantuan urtetzera, eta horrek ilusua egitten digu, eta ohittura honek indartsu jarraitzen dabala esango nizuen.

Eta, zer esan bukaerari buruz? Errosarixo kaleko Ama Birjiñan aurrian zure salbia kantatzen dogunian malko bat baiño gehixago ikusten da, emozuak eragindako malkuak. Bukaera horretan da batez ere zuen hiruron presentzia nabarixa gure artian, eta horrek ematen daban indarra ezin da hitzez azaldu.

Eta hortik, nola ez, Baltasarrera, urteroko anaiarteko bazkarixa ospatzera. Izugarri ondo pasatzen dogu. Eta, ezin ahaztu urtero-urtero ohittura hau mantentzen laguntzen deben herriko denda eta bestelako elkartiak.

Bai, aittitta. 86 urte pasatu dira, eta gauzak asko aldatu dira, baiña santa eskeak hor jarraitzen dau, kale egin barik. Garaixetara egokitzia ezinbestekua da, eta etorriko dira aldaketa gehixago, baiña ziur egon ahaleginduko gerala zuek erakutsitako bidari jarraitzen.



Jon Peli Uriguen

"Nire txanda" atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitetz gurekin harremanetan: 943 744 112 edo barren@elgoibarkoizarra.com

"Bai, aittitta. 86 urte pasatu dira, eta gauzak asko aldatu dira, baiña santa eskeak hor jarraitzen dau, kale egin barik"

SANTA ESKEKO IRUDIAK JARRIKO DITUGU ASTELEHENEAN!



**Egin
klik
eta
ikusiko
duzu**

www.elgoiBARREN.net

 ELGOIBARKO IZARRA
KULTUR ELKARTEA

OLAIZ TXURRUKA ESKIATZAILEA

“Lanik gabe geratzeak lagundu zidan erabakia hartzen”



Olaiz Txurruka, Baqueirako pistetan.

**Elurrak eta mendien edertasunak erakarrita, Aran Bailarara (Katalunia) joan zen Olaiz Txurruka orain dela urtebete pasatxo. Olaiz lanik gabe geratu zen, eta Euskal Herria lagatzeko momentua iritsi zela pentsatu zuen. Vielhako hotel batean egiten du lan arratsaldetan, eta goizetan, eskiaz gozaten du Baqueira Bereteko pistetan. Orain dela hamabi urte inguru hasi zen snow egiten, eta Vielha inguruan aurkitu duen jendeak kirol horrekiko pasioa transmititu diola aitortu du. Euskal Herriaren falta nabari du, eta ahal duen guztietan etortzen da familia eta lagunak bisitatze-
ra, baina momentuz Katalunia aldean geratzeko asmoa dauka.**

Noiz hasi zinen snow egiten?

Orain dela hamabi urte inguru hasi nintzen, 27 urte nituenean. Madrilen ari nintzen master bat egiten, eta ikaskideetako bat eski monotorea zen. Navacerradara joan ginenean berekin snowa probatzera, eta hasierako egunak ez ziren onak izan. Gaizki pasatu nuen, baina aurrera egitea erabaki nuen. 27 urterekin hastea berandu ere izan daiteke, baina lehenago hasi izan banintz honezkero aspertuta egongo nintzateke, eta gaur egun oraindik gauza berriak ikasten ari naiz. Izugarri gozaten dut, eta etengabe saiatzen naiz hobetzen.

Hasieratik hasi zinen snow egiten?

Aurrez eskia probatuta neukan. Institututotik joan nintzen pare bat aldiz, eta lagunekin ere noizbait Luz Ardidenean ibilia nintzen, baina gauza handirik ez. Navacerradan snow egiten hasi nintzen, eta justu sasoi hartan snow egiten zuen mutil elgoibartar bat ezagutu nuen. Parrandak albo batera utzi, eta berarekin hasi nintzen asteburuero Candanchura joaten. Oso jende onarekin egin nuen topo; txapelketetan parte hartzen zuen jendea zen, eta ondo ikasi nituen snow egiteko oinarrikoak diren gauzak. Mutil honekin ibiltzeari utzi ondoren, nire Mutrikuko lagunekin joaten

hasi nintzen Formigalera, baina ez zeukan aurrekoarekin zerikusirik. Maila asko jaitsi zen, eta snowarekiko ilusioa galdu egin nuen apur bat. Orduan, Baqueiran eskiatzen zuen koadrila bat ezagutu nuen, eta eurekin joatea erabaki nuen. Hori izan zen, beharbada, gero hartuko nuen erabakiaren lehenengo pausoa.

Nola hartu zenuen Euskal Herria utzi eta Aran Bailarara joateko erabakia?

Horrelako erabaki bat ez da egun batetik bestera hartzen. Gauza bat bestearen atzetik etorri ziren, eta horrek guztiak lagundu zidan erabakia hartzen. Baqueirara joaten nintzen

eskiztera, eta nire soldata zerbaitetan inbertitu behar nuela erabaki nuen. Etxe bat erositzea pentsatu nuen, eta elurretan ibiltzea izugarri gustatzen zitzaidanez, Baqueiran erositzea erabaki nuen. Apartamentu txiki bat erosi nuen, eta hiru urtez jardun nuen asteburero Baqueirara joaten.

Eta, noiz erabaki zenuen han bizitzen geratzea?

Orain dela urte eta erdi. Enpresa batean nabilen lanean, baina krisiaren ondorioz, langabezian geratu nintzen. Orduan ikusi nuen aldatzeko aukera. Egia esanda, nekatuta nengoen, eta estresatuta. Asteburuetan Baqueiran sekulako ondo pasatzen nuen, eta gero eta gogorragoa egiten zitzaidan astelehenetan lanera joatea. Euskal Herrian krisia gero eta nabariagoa zen, eta une hartan ez zen erraza lan bila hastea. Gainera, etxea Baqueiran neukan, eta nahiko argi ikusi nuen zein zen nire bidea. Jende askok esan zidan ausarta izan nintzela, baina nik ez dut horrela ikusten. Gauza asko gertatu ziren bata bestearen atzetik, eta momentua iritsi zen, iritsi behar zelako. Azken batean, lanik gabe geratzeak eragin handia izan zuen.

“Urte eta erdi daramat hemen, eta izugarri igartzen da krisiaren eragina”

Eta, nolako da zure bizimodua Baqueiran?

Hotel batean egiten dut lan, eta elurra dagoenean, eskiztera joateko aprobetxatzen dut. Hemen ostalaritza da nagusi, eta bezeroari begira egiten dugu lan. Bezeroa, normalean, goizez eskiztzen egoten da, eta 19:00ak aldera hasten da hemen mugimendua. Ni 16:00etan sartzen naiz lanera, eta goizez eskiztera joaten naiz. Asteburuetan ezin izaten dut eskiztera joan, baina ez zait gehiegi ardua. Jende asko egoten da, eta astean zehar eskiztzeko nahikoa denbora daukat.

Eski estazio desberdinak ezagutu dituzu. Zein berezitasun dauka Baqueirak?

Baqueiran maila handia dago. Inguru hau oso ondo ezagutzen duen jendearekin egin

dut topo, profesionalekin, gauzak pasioz kontatzen dituzten horietakoekin. Hori ez dut beste inon ikusi. Horrez gain, hemengo pisten kalitatea hobea da. Oso zabalak dira, eta jende asko egon arren, ondo eskiztatu daiteke. 45 euro ordaindu behar badiira ere, inon baino jaitziera gehiago egiten dira, ez delako jende ilara handirik egoten. Gainera, Espainiako estazioen artean Baqueira da Iparraldera begira dagoen bakarra, eta ondorioz, elurra hobea da.

Nolakoa da aurtengo denboraldia?

Elur aldetik nahiko flojo gabiltza, baina kanoiak martxan daude, eta hotz egin duenez, pistak nahiko ondo daude. Guri pistetatik kanpora eskiztzea gehiago gustatzen zaigu, baina beno, moldatzen gara.

Baqueirara jende famatu asko joaten da. Ikusten al dituzue?

Orain dela hilabete Elena Espainiako infanta eta bere semea ikusi genituen, eta Belen Rueda ere ikusi izan dut pare bat aldiz. Bai, jende ezagun asko etortzen da, baina pistetan denok erropaz gainezka joaten garenez, zaila da ezagutzea. Behin, diskotekan *Pocholorekin* ere egin genuen topo. Egia da, hemen baino friki eta pijo gehiago ez dagoela beste inon. Gure hotelera ez dira etortzen. Bi izarreko hotel xumea da, eta mendizale ikutua eman nahi diogu, mendizaleen atsedenerako gune bezala saltzen dugu.

Baqueira aldean krisiaren eraginik igarri duzue?

Nik urte eta erdi daramat hemen, eta izugarri igartzen da krisiaren eragina. Gure hotela urtarrean beteta egon da, baina otsaila flojo samar daukagu. Bidai agentziek ere esaten dute urte gogorra dela. Hala ere, dirua daukanak eta eskiztzea gustuko duenak etortzen jarraitzen du, baina ez lehen beste. Orain dela lau edo bost urte sekulako *boom*-a egon zen, eta jende pila bat hasi zen etortzen. Denboraldi osorako etxea

hartu, eta edonor joaten zen eskiztera. Hori bukatu da.

Udan nola aldatzen da horko giroa?

Askok aldatzen da. Bailara guztia neguko diruari begira bizi da, eta elurraren bueltan antolatzen da denboraldia. Jendea ere desberdina da. Neguan pijo gehiago etortzen da, eta udan etortzen direnak gehiago dira mendizaleak. Udan familian etortzen dira gehienak, eta giroa goxoagoa da. Niri gehiago gustatzen zait udako giroa negukoa baino. Jende asko etortzen da udan ere. Nik iaz abuztuan lan egin nuen, eta harrituta geratu nintzen. Elurrik ez egon arren, mendialde honetan gauza asko egin daitezke.

“Hemen baino friki eta pijo gehiago ez dago beste inon”

Noiz arte geratuko zara Aran Bailaran?

Ez dakit. Euskal Herriaren falta igartzen dut, batez ere, lagunena eta hango giroarena. Ahal dudanean joaten naiz bisitan, beharra sentitzen dudalako. 300 kilometroko distantzia ez zait handia iruditzen, eta gidatzea gustuko dudanez, erraz joaten naiz Euskal Herrira. Hiru orduko bidea ez da ezer! Hala ere, etorkizunean zer egingo dudan ezin dut esan. Lanik gabe geratu nintzenean Baqueirara etorri nintzen, eta gero, zer egingo dudan, auskalo! Momentuz hemen geratuko naiz, eta gero ikusiko dut. Mendialde hau oso ederra da, eta nire bikotekidea mendi gidaria denez, nahiko finkatuta dauka hemen bizimodua.

Ainhoa Andonegi



Hasi da sagardotegi denboraldia, eta apirilaren amaiera aldera arte iraungo du. **Badaukazu sagardotegira joateko ohiturarik?**



Mikel Galindo
20 urte, harakina

Bai, urtero joaten naiz. Ez gara sarri joaten, baina denboraldian zehar, behin bada ere joaten gara. Lagunekin joaten naiz, koadrilan, eta ondo pasatzen dugu. Prezioz ondo dago sagardotegiko menua, eta urtean behin joateko modukoa dela iruditzen zait.



Juan Manuel Torres
53 urte, txoferra

Bai, familian joateko ohitura daukagu: emaztea, bi semeak eta haien andregaiak. Orain langabezian nago, eta ez dakit aurten joaterik izango dugun, baina, nik sagardoa edaten jarraitzen dut, etxean. Sagardotegiko plana izugarri gustatzen zait.



Amaia Zabaleta
47 urte, baserritarra

Bai, urtero joaten gara auzotarrak, Sallobente elkartekoak. Dena dela, guk ia egunero edaten dugu sagardoa, etxean egiten dugu-eta. Plan ona izaten da sagardotegikoa, eta ez dut uste garestia denik. 50 euroekin egun osoa pasatzen dugu, ondo jan eta edanda.



Kenia Caraballo
35 urte, zerbitzaria

Ez naiz sekula egon sagardotegian, baina badaukat gogoia. Jendeari entzun diodanez, txuleta oso ona ateratzen dute sagardotegietan, eta badaukat probatzeko gogoia. Sagardoa ere ez dut inoiz probatu! Tabernan lan egiten dut, baina ez dut inoiz sagardorik edan.

■ SEMAFOROA



Txalo bero bat San Sebastian egunean Herri Eskolan danborrada antolatuta zutenei. “Azken urteetan bezala, Herri Eskolako Haur Hezkuntzako eta lehen zikloko ikasleek danborrada egin zuten San Sebastian egunean, eta oso giro polita izan genuen eskolako patioan. Guraso, ikasle eta irakasleek oso ondo pasatu genuen, eta antolatzaileek txalo bero bat merezi dute”.



Lagunak pilota taldeko kideek eskerrak eman nahi dizkiete San Anton txapelketa antolatzen lagundu dietenei: “Mila esker, modu batean edo bestean, San Anton pilota txapelketako babesle eta laguntzaile izan zareten guztioi: Elgoibarko Udala, Kirol Patronatua, Aterpe taberna, Txariduna hotela, Biak ileapaindegia, Sahatsu, Armueta eta Patxi harategiak, 10 bai taldea, Cordon Vilarchao, Lanbroa, Anton altzariak, Usatorre, Kaia, Julio Bueno ardoak, Eroski, Elustondo ardo banatzailea, Orbea taberna, Ex-trulaser eta Iraegi errotuloak. Era berean Udal Txistulari Taldea eta Haritz Dantza Taldea ere eskertu nahi ditugu, final nagusian parte hartzeagatik”.



Erretratu zaharra



1957

Argazki hau Pedro Mari Andonegik ekarri du BARRENERA, eta 1957. urteko martxoan Plaza Txikiko eskola publikoetan ateratakoa duzue. Francisco Lera maisuaren gelako mutil koxkorrak dituzue irudikoak, 9-10 urte bitarteko eskola umeak. **Goian, ezkerretik eskumara:** Fernando Angulo, Ramon Etxaniz, Jesus Mari Garcia, Marcial, Iñaki Elustondo, Carlos Villa, Javier Esnaola, identifikatu gabea, Antonio Azpiazu, Imanol Solupe, Miguel Angel Dominguez, Jose Mari Peñagarikano, Josu Etxaniz, Juanjo Atorrasagasti. **Erdiko lerroan:** Lorenzo San Martin, Jose Antonio Gonzalez, Jose Luis Oñederra, Perfecto Lertxundi, Jesus Mari Goikoetxea, Don Francisco Lera (maisua), Jose Mari Egaña "Mintxeta", Pedro Mari Andonegi, Pedro Mari Egaña "Mintxeta", Pedro Mari Urkidi, Jose Luis Rios, Luis Gurrutxaga. **Behean, ezkerretik eskumara:** Angel Muñoz, Miguel Angel Gutierrez, Agustin Compañon, Esteban Sarriguarte, Dionisio Lopez de Prado, Rosario Fernandez, identifikatu gabea, identifikatu gabea, Jose Alberto Gurrutxaga, Txomin Moreno, Obidio Campello, eta Jose Ignacio Arce. **Oharra:** Argazkiko hiru laguni identifikatu gabeak jarri baldin badiegu, argazkiaren jabea haien izenaz oroitzen ez delako izan da, eta ez ezezagunak direlako.



ESKERTZA

ARANTZA URIGUEN ARANBURU

2011ko urtarrilaren 26an hil zen.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Barren

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

Faxa: ☎ 943 743 704

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen **NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI** eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea,
Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA
Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio
MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz MAKETAREN
DISEINUA Jaione Unanue KOLABORATZAILEAK
Iñigo Lazkano, Anjel Bazterretxea, Andres
Alberdi, Angel Ugarteburu, Justo Arriola,
Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai
Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Eva
Garcia, Miriam Garcia, Jesus Mari
Makazaga, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez,
Maialen Arnedo. INPRIMATEGIA Gertu Koop.
E. TIRADA 4.800 ale LEGE GORDAILUA SS-
1.038/92 ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:



Laguntzaileak:




ELGOIBARKO UDELA



MENDAKO UDELA



ANE ARE DI



GUTUNAK



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak, NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Eba Zilbetirentzat:

Kaixo, Eba. Lehenik eta behin, badakit ikasle txarra naizela eta gorroto handia izango dida nire portaeragatik, baina gutun honen bidez, aldatzen saiatuko naizela esan nahi dizut. Badakit ez naizela ikasle trebea eta gehiago saiatu beharko dudala, baina mesedetxo bat eskatu behar dizut. Badakit ez zarela nire lagun bat, irakasle soil bat baizik, baina pazientzia gehiagorekin espero dut gu biok ondo konpontzea, nire eguneroko bizitza ezin delako horrelakoa izan, beti builaka eta haserre. Patxo bat!

I.B. ©

EDITORIALA

EUSKARAZKO HEDABIDEAK, BESTE JAUZI BATERAKO ORDUA

Euskarazko hedabideen historia jarraitu duenak, badaki azken 30 urteetako abaroan egin dela biderik emankorrena. Eta badaki denbora horretan emandako aurrerapausoa itzela dela. Gaur egun 400.000tik gora biztanlek kontsumitzen ditu euskarazko hedabideak, 2008ko Eusko Jaurlaritzaren ikerketa baten arabera.

Komunikazioa da gure ardatza, inguratzen gaituen mundua nola ikusten dugun kontatzea, ikusmolde eta euskarri anitzez. Elkarren lehian eta elkarren osagarri. Hori da lokaletik globalera egiten dugun ekarpen nagusia, hizkuntza, euskaraz egiten duguna. Harro gaude egindako bide horrekin, eta gure euskaltasunetik munduaren ikuskerara ugari eskaintzen ditugu.

Baina ez da nahiko, ibilbide horretan sakondu behar dugu, orain artekoa hobetuz eta zabalduz. Edozelako gizarte eta kultura modernoren geroan giltzarri da hedabideen zeregina. Printzipio eta helburuetan letra larriz aitortzen da garrantzi hori, baina sostengu ekonomikoan ez, ez behintzat hedabide ez publikoei dagokienez. Ezagun da EAE, Nafarroa eta Ipar Euskal Herrian oso egoera desberdinak bizi direla: Nafarroan eta Iparraldean erakundearen sostengua hutsala da; EAEn oso bestelakoa da, baina ez nahikoa, aurrean ditugun eronkei begira eusteko adinakoa ez bederen.

Hedabide ugari ari dira ixten munduan, guren aldean handi eta indartsuak izandakoak. Eta guk ere enbataren erdian dihardugu. Publizitatea behera, salmentak ere bai, diru-laguntzak urritzeko joeran... Noiz arte eutsi ahal izango diogu?

Bankuen, autoen, altzari eta elektratresnen salbamendu garaian, guk ere sostengu sendoa goa aldarrikatzen dugu. Maiz aurpegiratu zaigu diru publikotik bizi garela, bai euskal kultura, bai euskarazko hedabideak, konplexua sortzeraino ere bai agian. Orain, oster, inoiz baino argiago ikusten da nola giltzarritzat jotzen diren esparru eta proiektuetan, erakunde publikoek dirutzak bideratzen dituzten, izan hauek eremu publiko edo pribatukoak.

Eta ekonomikoki ere sektore garrantzitsua da euskarazko hedabide ez publikoena: 600 langiletik gora ari gara bertan, hilerro soldata etxera eramanez eta euskal gizartearen aberastasunean gure alea jarriz.

Azken 30 urteetan ibilbide oparoa egin dugu, baina bada ordua beste jauzi bat emateko. Gure konpromisoa hemen dago, egunerokoan ikusgai. Oraingoan, herri erakunde publikoen sostengu ekonomiko handiagoa aldarrikatzera gatoz, errepide, trenbide edo eraikuntza handien zati txiki batek gure etorkizuna berma dezakeelako. Euskarazko komunikazioak merezi du tamainako apustua eta euskal kulturak ere bai.

ELGOIBARKO IZARRA - 'BARREN' ASTEKARIA



**Justo
Arriola**

2011 minga-
rri datorrela esaten
juek botere “erreala”-ren
txotxongilluek. Mundu maillako
atrakua dok errezeta globala: diru-zo-

rrua ala bizixa!? (bixak!). Kasinuan bezala bankak beti irabazten jok. Lan istripu edo gaixotasunetik libratzia lortzen badok, zaharminak harrapatuko hau lanpostuan: gero eta nekezago aillegatuko gaittuk jubilaziora (eta hillaren amaierara). Paradisu (eta iruzur) fiskala eurentzat, egurra bestiontzat. Odol urdindunak ere exigittu jaittuk sakrifizixuak Merkatu jainkuaren odol egarrixa asetzeko... une batez. Jaurlaritzak eta Confebaskek bakia eta demokrazia ahotan jarabixek, negoziuetarako bihar daben marketiña, jakiña; baiña gerra makiñarixia elikatzen jarraitzen juek. IMHren laguntzarekin gaiñera, hi. Urrutiegi jun gabe, Elgoibar, Mendaro, Eibar eta Soralezuko enpresak programa militarretan jiharduak: EF-18 abioia, A400M Airbusa, Chinook helikopterua, Eurofighter hegazkiña, Leopard tankiak, kaiñoiak, obusak. Misilentzako sistemak ere bai. ISO-9000 kalitatezko hilketak.

**“Gero eta nekezago aillegatuko gaittuk
jubilaziora (eta hillaren amaierara)”**

Sindikatuak esango al juek zeozer jostailu honetaz! Lana dala-ta, dana balixo al jok? Zenbat afganistandar garbittu dittue made in Elgoibar piezak daruezen Tigre eraso-helikopteruek? “Fidagarritasun osua operazio eremuan.” Hemengo arma-industriak Kolonbia, Afrika edo Ekialde Hurbilian eragindako biktimak etorri biharko zittuan eskoletara umiekin biolentziari buruz berba egittera. Ez dok uste, Arkaitz?



**Arkaitz
Irureta**

Aspaldixan nabik neu ere kontu berari bueltak ematen. Lotsagarrixa dok zenbat diru juaten dan gastu militarretara, bai zuzenian, eta baitta zeharka ere! Krisi garaixa laguntza sozialak murrizteko aitzaki darabilten agintarixek ez juek gastu militarrek jeitsi bihar diranik aittatu ere egitten. Aldiz, beste biolentzia batzuk bizkor asko kondenatzen dittue, iraultza zerga barne. Nortzuk eta hiltzeko armak egitten dittuenek, harrapazak!. Nik ere ez diat nahi nere zergak jendea hiltzeko erabil deizezen, eta horregaittik hurrengo zerga ekitaldixan gastu militarri objektio fiskala egittekotan nagok. Enpresa gizon hórrek ere batuko ote dittuk nerekin? Denok ari gaittuk heriotzak eragitten!

**“Aberastasun banaketa gero eta
handixagoa dagok, baiña goruntz”**

Eta nundik jan behar diagu? Ekonomia jasangarriaren teoriak, langabezi tasa teorikoa On jartzen jok (egungo sistemak %10eko langabezi bat behar ei jok bizitzeko) eta sistema jasangarri bat proposatzen jok, bai naturarentzat eta baitta gizakiontzat, danontzat orekatua. Teoria teoria dok, baiña pentsau geinke praktikara pasatzian etorriko dirala akatsak. Egungo sistema ekonomikoari krisiak ez ezik injustiziak, gerrak eta lapurretak onartzen jakozen bittartian, ezingo diagu ba aitzakixa hori erabilli beste era bateko gizarte bat egitten saiatzeko! Aberastasun banaketa gero eta handixagoa dagok, baiña goruntz: askori kendu gutxi batzuk aberasteko. Noiz arte jarraitu ahalko diagu horrela, horixe bera gure kontra etorri aurretik?

ESKERTZA

RAMON ZABALA MENDIZABAL



2011ko urtarrilaren 30ean hil zen.
Meza domekan, otsailak 6, goizeko 10:30ean egingo da,
San Lorentzoko elizan. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Herri Eskolako eta Mintxetako eguzki plakak energia sortzeko prest daude

Sortuko den energiaren partaidetzak erosteko aukera izango dute herritarrek

Eguzkiaren argia ustiatuta, energia garbia sortzeko prest daude Mintxetako eta Herri Eskolako teilatuetan jarri dituzten eguzki plaka fotovoltaikoak. Mintxetako igerilekuen aldageletako teilatuetan eta Herri Eskolako teilatuan 15-20 KW-ko eguzki instalazio fotovoltaikoak jarri dituzte. Energia iraunkorraren kultura zabaltzeko eta orokortzeko lan horretan, herritarrek eta gizarte eragileak partaide izateanahi dute proiektuaren arduradunek, partaidetzak erositzen. Izan ere, horiei esker energia sortzeko metodo hori zabaltzeko eta hedatu egingo dela uste dute Diputazioko arduradunek, eta egindako inbertsioetik errentagarritasun ekonomikoa lortzeko dela sinetsita daude. Eguzki plaken funtzionamendua azaldu, eta, besteak beste, sistemaren bideragarritasun ekonomikoa erakusteko, parte hartzeko era azaltzeko, eta eragile ekonomikoentzat duen erakargarritasuna agertzeko informazio bilerak anto-




latzeko asmoa aurreratu du Diputazioak.

Foru Aldundiak Elgoibarko Udalaren laguntzarekin sustatutako proiektu pilo-

tu honetan lau herri ari dira parte hartzen: Elgoibar, Oñati, Zarautz eta Zegama.

Pilarreko egoitzaren proiektua gelditzeko eskatu du ezker abertzaleak



Udal hauteskundeak egin arte (maiatzean) Pilarreko zahar etxearen proiektua geldiarazteko eskatu dio Elgoibarko ezker abertzaleak Udalari. Batetik, Pilar ikastetxea izan zena zahar etxe bihurtzeko proiektuaren inguruan Udalak erakutsi dituen “inprobisazioa eta inkompetentzia” salatzen dituzte, eta, bestetik, “beste gai askotan bezala herritarrei bizkarra ematen aritea” le-

poratu diote Udalari. Era berean, nagusien eta ongizate arloan “sentsibilitaterik gabe” jokatu izana egotzi dio Elgoibarko ezker abertzaleak EAJri.

Zentro soziosanitario bat jartzeko lekurik aproposena Ura-sandi Berri deituriko eremua dela defendatzen du ezker abertzaleak. Zahar egoitza, anbulategia eta Gurutze Gorrikoen egoitza elkarren ondoan jartzeko aukera emango lukeela diote, eta San Lazaro egoitzatik gertu egongo litzatekeela, gainera. “Horrek, baina, 460 etxebizitza egitea oztopatzen duenez, ez zaie interesatzen”, gaineratu dute ezker abertzaleko kideek.

Hortaz, “kazikismoan” ez erortzeko eta udal hauteskundeak pasatu arte, Elgoibarko herritari, eta herritarrei “larriki” eragiten dion proiektua gelditzeko eskatu dio Elgoibarko ezker abertzaleak alkaltetzari.

Gai honen harira, Alfredo Etxeberria alkateak ondorengoa adierazi du: “2008ko abenduako plenoan 14 aldeko boto eta abstentzio batekin onartu zen proiektua, eta ordutik ez da inprobisaziorik egon”. Argi utzi nahi du proiektu hau ez dela Alfredo Etxeberriaren kontua.

Ekitaldia **Mus txapelketa**

Kimetz elkarteak mus txapelketa antolatu du aurten ere. Otsailaren 11 baino lehen eman behar da izena Lanbroa, Jai Alai edo Iturri tabernetan, eta bikote bakoitzak 2hogei euro ordaindu beharko ditu. Irabazleek txapela, garaikurra eta 3.000 euro jasoko dituzte. Iaz, Manuel Salegik eta Pedro Garatek irabazi zuten Elgoibarko kanporaketa, eta, Euskal Herriko txapelketan zazpigarren postuan sailkatu ziren.



Irudia **Kandelaria eta San Blas**

Kandelaria eguna izan zen eguaztenean, eta horren harira, herritar ugari batu ziren San Bartolome parrokiaren kandelak bedeinkatzeko. Atzo, bestalde, San Blas eguna izan zen, eta hainbat eta hainbat herritar izan ziren mezatan, San Blas opilak bedeinkatzen. Eztarriko gaixotasunen kontrako lokarriak ere bedeinkatu zituzten, eta fededun askok jarriko dituzte bederatziguneguz. Ondoren erre egin behar dela dio tradizioak, urte osoan eztarriko minik ez edukitzeko.



Demidov Realeko jokalariai autoa oparitu dio Giautok

Elgoibarko Opel Giauto konzesionarioak auto bat oparitu dio Vadin Demidov Realeko jokalariai. Eguazten arratsaldean egin zioten oparia. Opel Astra gorria hartu zuen jokalariai, eta sei hilabetera bueltatu beharko du.

Lourdesera bidaia

Otsailaren 11n Lourdeseko Ama Birjinaren eguna dela-eta, Lourdesera irteera antolatu dute. Goizeko 6:15ean irtengo da autobusa Sigmako zubitik, eta gaueko 21:00ak aldera itzuliko da Elgoibarrera. Bidaiak 39,5 euro balio ditu, bazkaria barne. Interesatuak ondorengo telefonora deitu dezakete izena emateko: 943 740 822.

25 urteko mutila atxilotu dute, droga trafikoa egotzita

25 urteko gizon bat atxilotu zuen Ertzaintzak joan den barixakuan San Roke auzoko etxe abandonatu batean, droga trafikatea egotzita. Herrizaingo Sailaren arabera, 81 gramo speed eta hogeita hamar gramo marihuana atzeman dizkiote. Ertzaintzako iturrien arabera, beste droga batzuk mozteko erabiltzen den substantzia baten 90 gramo ere atzeman zizkioten gizon bati. Droga trafikoa eta salmentan aritzea egotzita atxilotu egin zuten 25 urteko gizon bati, eta epailearen aurrera eraman dute.

1977an jaiotakoekin kinto bazkaria, martxoaren 26an

1977an jaiotakoekin kinto bazkaria egingo dute martxoaren 26an. Bazkaritara joan nahi duenak 50 euro sartu beharko ditu Kutxako kontu korrante zenbaki honetan, martxoaren 11 baino lehen: 2101 0036 62 0012764338. Martxoaren 26an eguerdiko 12:30ean batuko dira Madalako parkean, eta argazkia atera ondoren bazkaltzera joango dira.

Aisialdian ere euskaraz



Herriko gainerako haur eta gazteekin harremanak egin, besteeikiko errespetuan hezi, partaidetza eta genero berdintasuna sustatu eta, batez ere, aisialdian ere euskaraz bizi. Horiexek dira Mendaroko ludotekak eta gaztelekuak bere egin dituzten baloreak, eta jolasa dute, hein handi batean, balore horiek sustatzeko tresna. Aurten hiru urte bete ditu gaztelekuak, eta hamabi ludotekak, eta bien lan egiteko era ezagutzeko eta, bide batez, 2011rako dituzten asmoen berri jakiteko, Irantzu Irusta eta Araiz Aldazabal hezitzaileekin bildu da BARREN, gaztelekuan.

Ainara Argoitia

Mendaroko ludoteka eta gaztelekua Udalaren zerbitzuak dira berez, baina azkeneko hiru urteotan Debako Zehar heziketa eta programak enpresak kudeatzen ditu. Ludoteka 4 urtetik 12 urte bitarteko haurrentzat sortutako txokoa da, eta gaztelekua, berriz, 12-16 urte bitarteko nerabeentzako. Asteburuetan zabaltzen dute bata, eta, martitzenetik barixakura bestea, baina, funtsean, helburu berarekin zabaldu zituzten bata zein bestea: euren beharretara egokitutako aisialdirako gune bat eskaintzeko haur eta gazteei. Eta bistan da Mendaroko haur eta nerabeek gustuko dituztela, ikasketek eta eskolaz kanpoko jarduerak aisialdiari gero eta denbora gehiago kendu arren, beti topatzen dutelako tarteren bat eurentzako sortutako bilgunean elkartzeko. Halaxe adierazi du Araiz Aldazabal ludotekako begiraleak.

Herri erdi-erdian dago ludoteka, hirugarren solairu batean, baina beheko atean barrera sartu orduko jabetzen da bat han goian dagoe-

naz. Zalaparta handia dago, eta ez da harrizkoa. Izan ere, 30 bat ume inguru badira han goian, eguneko bigarren txandan. 4 urtetik 12 urtera bitarteko haurren bilgunea da ludoteka, baina erabiltzaileek adinaren alde handia dutenez, adinaren arabera orduetgia ezarri dute. 17:00etatik 18:00etara 4 urtetik 6 urte bitartekoak biltzen dira, eta bigarren orduan, 18:00etatik 19:00ak bitartean, 7 urtetik 12 urtera bitartekoak. Leku zabala da oso, jolaserako egokitutakoa, eta ohiko jostailu, futbolin eta mahai jokoez gain, eskulanetarako txokoak eta teknologia berrientzako gela ere badituzte. "Ordenagailuan ibiltzea ikaragarri gustatzen zaie", dio Araizek, eta hala dirudi. Txanda hartu ezinda dabilta haurren ordenagailu aurrean, eta gainerako gehienak margotzen ari dira, nor berean. Gaur egun, 52 bazkide ditu ludotekak, baina ez dira egunero denak joaten. "Gaurko umeek ez dute ia jolaserako denborarik ere. Dantza dela, musika eskola dela, edo futbola dela oso okupatuta bizi dira", esan du horren harira Araizek.

Ludotekako hezitzailea izateaz gain, In Leike aisialdi taldeko begiralea ere bada Araiz, eta ondo ezagutzen du txikienen errealitatea. Zazpi laguneko taldea dira In Leiken, eta jai egunei eta oro har oporraldira begira antolatzen dituzte ekitaldi gehienak. Irteerak egiten dituzte, karaokeak antolatzen dituzte, eta herrian antolatzen diren beste-lako ekitaldietan parte hartzen dute, beti ere aisialdian euskara sustatzeko helburuarekin. Aurten, eta diruak ematen badu behintzat, Donostiako akuariumera joango dira lotara.

Gaztelekua, nerabeen txokoa

Gaztelekua, berriz, barixakutik domekara zabaltzen dute, 12 urtetik 16 urtera bitarteko nerabeentzako. Ludoteka bezain lokal zabala da gaztelekua, eta kasualitatea izan edo ez, gaztetxearen gaineko partean dago, gaztelekuko etapa bukatzen dutenen hurrengo erreferentziazko bilgunetik bi pausora. Ere libre bat da gaztelekua, gazteen beharretara egokitzen dena. Gaztelekuaren beraren helburuetan ere hala dago jasota: "Gazteriaren grinak eta beharrak ezagutu eta horiei erantzuna ematen saiatu". Izan ere, nerabeen beharrak ezberdinak dira, Irantzuren esanetan. Bera da gaztelekuan biltzen diren nerabeen erreferentziazko pertsona, eta hala, aholkulari lanaz gain, psikologo lana egitea ere egokitzen zaio sarri Irantzuri. "Euren aldean heldua naiz, baina ez naiz haien irakaslea eta ezta gurasoa ere, eta horrek gertukoagoa egiten nau. Izan ere, adin tarte horretan taldeak garrantzia handia dauka, eta sari gurasoei baino aurretik kontatzen dizkiete gauzak euren lagunei". Eta hor sartzen da bera. Zapatuan egindakoak, neska edo mutil lagunarekin dituzten gorabeherak... etxean esatera ausartzen ez direnak gaztelekuko lagunekin eta begiralearekin konpartitzen dituzte.

Gaztelekuko erabiltzaile zaharreneen kasuan "nabarmenagoa" da hori. "Garbi dago beste behar eta kezka batzuk dituztela. Askok gaztelekua laga eta lokala hartzen dute alokairuan. Koadrilak pisu handia dauka nerabezaroan, eta euren kasa egoteko lekua bilatzen dute. Hala ere, bisitan etortzen zaizkigu tarteka, eta eskertzen da".

Autonomia, ardura, izpiritu kritikoa eta partaidetza sustatzea dira gaztelekuaren helburu nagusiak, eta horretarako, jakina, araudi bat ere badute. Hori bai, edonori irekitako lekua da gaztelekua, dela herriko gazteei hala inguruko lagunei ere. Gainera, ludotekan ez bezala, gaztelekuan erabiltzaileek ez dute kuotarik ordaindu behar hango zerbitzuak erabiltzeko.

Gaur egun, 40 bat lagun biltzen dira guztira, eta tarteka, irteerak ere egiten dituzte *paintballean* ibiltzera, Andoainera, Donostiara, Debara eta baita Arcachonera ere (Frantzia), Debako gaztelekukoekin batera. Orain, zinemaldia hasiko dute. Domekero film bat eskainiko dute San Agustin kulturgunean. Txandaka egingo dute: domeka batean, gaztelekuko gazteentzako filma emango dute, eta hurrengoan, umeentzako. Inauteriei begira, berriz, gaztelekuko aste barruan zabaltzea aztertzen ari dira begiraleak, gazteek astebeteko oporraldia izaten dutelako egun horietan. Bitartean, gaztelekua bera txukuntzen ari dira gazteak. Hormak margotu, eta lokala euren gustura jarriko dute, huraxe delako euren bigarren etxea.

Haur eta gazteentzako zinemaldia hasiko da aurki San Agustin kulturgunean. Domekero film bat eskainiko dute.

GAZTELEKUA

Gaztelekuko irudiak dituzue hauek. Lehenengoan, gaztelekuko bi erabiltzaile ageri dira, futbolinean jokatzeko. Bigarre-na, berriz, Mendaroko Udalak gaztelekuko gazteentzako antolatutako berdintasun ikastaro bateko irudia duzue, eta hirugarrena, aurten Andoainen antolatu du-ten futbol txapelketa batera egindako irteerakoa.



Argazkiak

San Juan Bosco, ikasleen santua

San Juan Bosco Eguna ospatu zuten joan zen barixakuan IMHn eta Elgoibar BH Institutuan, eta urtero bezala, umorea izan zen nagusi ikasleen eta irakasleen artean. Goizean goizetik izan zituzten ekitaldiak bi ikastetxetan, eta ikasleak lehia bizian ibili ziren, nor baino nor. Hona hemen ikasleen santuaren omenezko ekitaldietako erretratu batzuk.

Kirol eta proba harigarriak egin zituzten IMHn.



Zitzu bizian jaitsi ziren Elgoibar BH Institutoko ikasleak gotibeheretan.



Triindorrean neurtu zituzten indarrak hainbat ikaslek.



Mintxetako pistan, atletismo lasterketa hasteko prest.



Sokatiran gogor jardun zuten IMHn.



Ikasle asko batu ziren kiroldegian, futbito txapelketan parte hartu zuten ikaskideei animoak emateko.





ENEKO LOIOLA

Pilotaria

Bosgarrenean jantzi du Eneko Loiolak San Anton txapelketako txapela. Uriartek eta berak, 22-13 hartu zituzten mendean Atxotegi eta Jauregi. Pilota motela aukeratu zuten, eta Loiolaren esanetan, hori izan daiteke finala irabazteko arrazoia. Pozik dago Aiasiako pilotaria, eta txapela herrian bertan janztea oso berezia izan dela aitortu du.

“San Anton txapelketako arantza kendu dut”

Bost final jokatu behar izan dituzu txapela janzteko.

Bai, halaxe izan da. Aurten, gainera, inoiz baino gutxiago jokatuta iritsi naiz txapelketara. 2009an partida asko jokatu nituen, eta eskuetatik gaizki ibili nintzen iazko udan. Batetik eta bestetik deitu zidaten, eta ezetik esaten ez dakigunez, azkenean eskuak mindu! Pare bat hila-bete geldirik egon behar izan nuen, eta forma fisikoa galdu nuen. Irailan hasi nintzen berriz entrenatzen, baina nahi nuena baino apalago ikusten nuen neure burua, eta esan nion entrenatzaileari, beharbada, ez nuela San Anton txapelketan parte hartuko. Egia da martxan has-tean erraz jartzen naizela forman, baina beste pilotarien aldean flojo nengoen. Beteranotasunak lagundu zidan, fisikoak baino gehiago. Semifinlean partida oso ona egin genuen, eta erraz irabazi genuen.

Eta finlean iazko pilotari berberekin egin zenuten topo. Errebantxa hartzeko gogorik bazenuten?

Ez, irabaztea nahi genuen, besterik gabe. Iaz pilota arina atera genuen, eta Jauregik kristoren indarrarekin ematen dio. Gu boleaz ondo ibiltzen gara, baina boleaz ez dago miraririk! Partida amaieran Jauregik esan zidan beretzeko pilotarik aproposena atera genuela, eta hori buruan geratu zitzaidan. Aurten, beraz, argi geneukan: pilota motela atera behar genuen. Horrez gain, sekula baino gehiago baztertu nuen pilota. 12 tantora arte nahiko berdinduta joan ginen, eta ni nekatuta nengoen, baina banekien besteak ere halaxe egongo zirela. Une horietan botileroaren lana oso garrantzitsua da, eta berak eman behar dituzte aginduak. Aita ere oso ondo ezagutzen dut, eta haren keinu guztiak ezagutzen ditut. 12ra berdinduta geundela, tanto gogor baten ostean, ezinean nengoen eta gure aitak sekulako txistua jo zuen, frontoi

guztian entzuteko modukoa. Horrekin esertzeko eta deskantsatzeko esan nahi zidan, eta halaxe egin nuen. Partidaren bigarren zatian gu hobeto ibili ginen, eta zuzenean joan ginen 22ra.

Txapela zeure herrian janztean zer sentitu zenuen?

Poza. Frontoian 200 lagun baino gehiago zeuden, eta denak zutik norberari begira ikustea sekulakoa da. Aitari begiratzen nion, eta hark ere ezin zuen irribarrea ahotik kendu, eta horrek satisfazio handia ematen du. Bosgarren finala nuen, eta irabazi beharra neukan. 2006an iritsi nintzen estreinakoz finalera, 2007an ez nuen jokatu, eta azken lau urteetan segidan iritsi naiz. Aurten ez banuen irabazten, erretiratzeko esaten zidaten lagunek, baina nik argi neukan txapela lortu arte ez nuela lagako. San Anton txapelketako arantza kendu dut, eta orain erretiratzeko moduan nago.

Eta, hemendik aurrera zein da zure asmoa?

Momentuz segitzeko asmoa daukat, baina datorren urtean San Anton torneoa jokatuko dudana ala ez, auskalo! Urtebetan gauza asko pasatu daitezke. Pilotan jokatzea gustatu egiten zait, eta gainera, kirola egitea ona da.

Elgoibarren badago pilotarako zaletasunik?

Zaletasuna bai, baina frontoia falta da. 10 bai taldekoak lan handia egiten ari dira, eta ia lortzen duten ganorazko frontoi bat egitea. Zortzi pilotari gabilza nagusietan jokatzen, eta ez dago gure mailan jokatzekeko frontoirik. Handiena San Migelgoa da, baina irekia denez, han ezin da jokatu. Ikastolako frontoia txiki geratu da, eta dutxak ere zaharkituta daude. Elgoibar baino herri askoz txikiagoek frontoi hobeak dute. Nik uste dut frontoiari erabilera asko emango genizkiola.

Morkaikok egiten duen lana positiboki baloratu arren, elkarteak “lehenaldian kateatuta” ikusten dute herritarrek

Hilaren 10ean aurkeztuko dituzte gogoeta saioan jasotako ondorio nagusiak

Azaroaren 13an Sallobenteko Azaola baserrian egindako gogoeta saioan jasotako ondorio nagusiak jende aurrean aurkeztuko ditu Morkaikok otsailaren 10ean, musika eskolan (19:00). Handik, Errosario kalean duten lokalera joango dira, lokal berritua ikusi eta mokadutxo bat jatera. Azaolako gogoeta mintegi hartan, 44 lagunek parte hartu zuten, eta haien ustez, Elgoibarko gizarte ondo errotutako elkarteak da Morkaiko. Hala ere, elkarteak jende berria erakartzeko dituen zailtasunak ere jaso zituzten, eta baita horren arrazoiak ere. Bate-tik, eta han bildutakoen esanetan, herritarrek “koadrila edo talde itxi baten itxura” hartzen diote elkarteari, eta herritar horietako askok euren gandik “urrun” ikusten dute elkarteak.

Beste zenbaiten ustez, berriz, Morkaikok maila handiko jarduerak antolatzen ditu, eta hori bera traba da jende berria erakartzeko.

Oro har, herritarrek positiboki baloratzen dute Morkaikok egiten duen lana, baina askoren ustez, “lehenaldian kateatuta” gelditu da elkarteak, eta “ausardia falta du” egoera eta behar berrietara egokitzeko. Programazioari dagokionean, esate baterako, herritarrek iritzi positiboa dute oro har jarduerak batzuen gainean, baina askoren iritzi, urtero errepikatzen da programazio bera. Hala, Morkaikok umeekin eta gazte-txoekin lan egin beharko lukeela ondorioztatzen dute, eta mendi irteerak antolatzeko orduan, espezializazioaren bidea gehiago landu beharko litzatekeela. Era berean,

mendiari lotutako prestakuntzari orain arte baino gehiago erreparatu beharko liokeela ere uste dute, eta irteerak antolatzeko orduan, zuzendaritzakoez gain, beste jende batek ere parte hartu behar duela.

Sagardotegira irteera

Otsailaren 12rako Adarra mendira (811m) irteera antolatu du Morkaikok, eta mendi buelta egin ondoren, Astigarragako Rezola sagardotegira joango dira bazkaltzera. Dagoeneko, autobus bat bete dute, eta bigarren bat ere jarri dute. Eguaztenean amaitu zen berez izena emateko epea, baina edozein argibidetarako Morkaikora deitu dezakezue: 943 740 297.

Ordutegi zabalagoa izango du Mintxetako muskulazio gelak

Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak berrikuntzak aurkeztu ditu urtea hastearrekin batera. Bate-tik, Mintxetako muskulazio gelak ordutegi zabalagoa izango du aurrerantzean, eta, beste-tik, giharrak lantzeko aparatu berri bat erabili ahal izango dute muskulazio gelako erabiltzaileek.

Otsailaren 1etik aurrera, 10:00etatik 21:30era arte zabalduko dute gela hori aste barruan, eta zapatuetan, berriz, 10:00etatik 13:00etara. Orain arte, astegunetan itxita egoten zen muskulazio gela, 12:30etik 15:00etara.

Era berean, piraguan ibiltzea gustuko dutenentzat oso aproposa den kayak ergometro aparatua jarri dute kardia gelan.

Bestalde, Kirol Patronatuak eskaintzen dituen bi ikastarotan parte hartzen dutenek, lagun bat gonbidatu ahal izango dute otsailean zehar egingo diren ikastaroetako batera. Gonbidapen horri esker, ondorengo ikastaroetako batean parte hartzeko aukera izango dute herritarrek: pilates, spinning, GAP, tonifikazio muskularrak, aerobika eta aquaerobika. Interesa dutenek Olaizaga kiroldegiko harreran bete beharko dute gonbidapen-eskuorria.



ESKERTZA

FERNANDO AZPIAZU URIBETXEBERRÍA

2011ko urtarrilaren 30ean hil zen.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Euskaldunen artean hirugarren egin dute Lariz eta Iruretak Altitoy proban

Sailkapen nagusiko 27. postuan amaitu zuten proba



ñigo Larizek eta Arkaitz Iruretak osatutako bikotea primeran moldatu da Altitoy eski proba ezagunean. Sailkapen nagusiko 27. postuan sailkatzea lortu dute eta, euskaldunen artean, hirugarrenak izan dira. Altitoyan funtsezkoa da talde lana, besteak beste, bigarrenaren denbora hartzen delako kontuan. Larizek eta Iruretak elkar oso ondo konpontzen direla erakutsi zuten. Bi eguneko proban 550 parte hartzaile lehiatu ziren, joan den asteburuan, Luz Saint Sauver inguruan, eta Elgoibarko hamabi eskiazailek parte hartu zuten Morkaikoren izenean.

Maite Maiora, hirugarren gipuzkoarra Lasarteko Nazioarteko Krosean

Lasarteko Nazioarteko Krosa jokatu zen domekan, eta emakumezkoetan hamabosgarren sailkatu zen Maite Maiora mendaroarra. Guztira, 38 atletek parte hartu zuten emakumezkoetan, eta Maiorak 21:22ko denboran osatu zuen 5.300 metrotako ibilbidea. Galgo operazioan nahastutako Nuria Fernandez atletak irabazi zuen lasterketa, 18:54ko denborarekin, baina Gipuzkoarren sailkapenean, podiumera igotzea lortu zuen Maiorak, hirugarren egin zuelako.

Mintxeta Atletismo Taldeko atletek ere emaitza oso onak lortu zituzten. Ioar Urkirik eta Lorea Santiagok zilarrezko eta brontzezko dominak eskuratu zituzten, hurrenez hurren, nork bere mailan.



EMAITZAK

FUTBOLA

Arenas 2 – Haundi 1 (3. maila)
Euskalduna 1 – Elgoibar 2 (Erreg. pref.)
Elgoibar 3 – Union Txiki 2 (Jub.)
Oriko 0 – Elgoibar 6 (Kad. A)
Elgoibar 3 – Zestoa 2 (Kad. B)
Zumaia 5 – Elgoibar 1 (Ohorezko inf.)
Elgoibar 7 – Lagun Onak 0 (Inf. txiki)

ESKU PILOTA

Debarroko Txapelketa
Beloki 22 – Lagunak 17 (1. mailako nag.)
Lagunak 22 – Arrasate 0 (1. mailako nag.)
Lagunak 22 – Zestoa 21 (2. mailako nag.)
Intxurre 0 – Lagunak 22 (1. mailako jub.)
Lagunak 22 – Arrasate 9 (2. mailako kad.)
Pala
Lagunak 17 – Goierrri 25 (2. mailako nag.)

ESKUBALOA

Pulpo 24 – Alkorta Elg. 38 (Sen. mut.)
Amenabar 23 – Beristain Elg. 35 (Jub. mut.)
Txarriduna Elg. 27 – Amenabar 27 (Kad. mut.)
IMH Elg. 27 – Zalla 17 (Kad. neska.)
Aterpe Elg. 9 – Aloña Mendi 37 (Inf. mut.)
Astigarraga Elg. 16 – Arrate 16 (Inf. neska.)
Aiala 17 – Ikusn Elg. 28 (Inf. neska.)
Tecnifuelle Elg. 21 – San Adrian 23 (Sen. neska.)
Zuazo 26 – Grupo Eibar Elg. 34 (Jub. neska.)
Zuazo 23 – Lauko Elg. 23 (Kad. neska.)
Sanlo Elg. 24 – Arrate 12 (Aleb. mut.)

AGENDA

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 5
11:30 Elgoibar – Oriko (Ohorezko inf.)
16:30 Haundi – Amorebieta (3. maila)
18:45 Elgoibar – Lazkao (Erreg. pref.)
Domeka, 6
11:45 Elgoibar – Beti Gazte (Kad. A)

ESKUBALOA (Kiroldegian)

Zapatua, 5
11:15 Ikusn Elg. – Pulpo (Inf. neska.)
16:00 Lauko Elg. – Kukullaga (Kad. neska.)
17:30 Grupo Eibar Elg. – Kukullaga (Jub. neska.)
19:00 Alkorta Elg. – Hegialde (Sen. mut.)


ESKU PILOTA

Barbakua, 4
21:15 Lagunak – Beloki (1. mailako nag.)
22:00 Lagunak – Azkoiti (1. mailako nag.)
22:45 Lagunak – Beloki (Pala)
Domeka, 6
12:00 Lagunak – Hernani (1. mailako jub.)

JOSEBA ZINKUNEGI

Kazetaria

Jon Anza ETAko militantearen biografia eta haren desagertzearen eta heriotzaren inguruko datuak eta galderak bildu ditu Joseba Zinkunegik (Eibar, 1966) Juan Jose Petrikorenarekin (Andoain, 1963) batera idatzi duen 'Jon Anza. ¿El último crimen de estado?' liburuan.



“Garbi dago ez dela Jon Anzaren auzia argitzeko borondaterik egon”

Noiz eta nola erabaki zenuen horren gai korapilatsu bati buruzko liburua idaztea?

lazko Aste Santuak aldera izan zen. Otsailean irten nintzen espetxetik, eta Aste Santu bueltan Txalapartakoek deitu zidaten, liburu hau idatziko ote nuen galdezka. Erronka gisa hartu nuen, nahiz eta kazetari-tza ikasitakoa izan sekula ez nuelako aurrez halako lanik egin, baina lehenengotik baietza eman nien, jakin gabe ondo gero zer nolako zailtasunak eta oztopoak izango genituen. Maiatzean utzi zuten aske *Petri* [Juan Jose Petrikorena], eta hari komentatu nion gero, eta hark ere baietza eman zuen.

Jon Anzaren gainean ez dela egia jakin salatu duzue. Egi horren bila osatu duzue liburua?

Esperantza horrekin hasi ginen, baina gerora ikusi dugu bide horretatik ezin genuela luze jo, bide guztiak itxita zituztelako. Hala, liburua berdefinitu genuen. Garbi geneukan liburuak bi atal izan behar zituela: batetik, Jon Anzari buruzko biografia, 1962an jaio zenetik [2009ko apirilean] desagertu zen artekoa, eta bestetik, ikerketaren gaineko datuak, bertsio ofiziala, ikertu gabekoak eta abar. Bageneukan informazio mordo bat bilduta, prentsan ateratakoa-eta, eta horrekin gertatu zenari buruzko kronologia moduko bat osatu genuen. Hortik haratago ere joan nahi genuen, hala ere. Bertsio ofizial hori desmuntatu nahi genuen, Euskal Herrian zoritxarrez egon direlako Jon Anzarena bezalako kasu gehiago, eta horietan guztietan bertsio ofizialak sekula ez direlako egia izan.

Zer da auzi honetan deigarriena egin zaizuen?

Disfuntzio asko daude, baina beharbada nabarmenena zera da: pertsona bat desagertu zela estatu frantsesean eta hamaika hilabetez inork ez zuela jakin non egon zen ere. Txiripaz jakin genuen, gainera, hamaika hilabete egin zituela Tolosako gorputegian, hango langile batek polizia lagun bat zeukalako eta hari abisatu ziolako.

Ikertu beharreko bi epealdi zehazten dituzue liburuan.

Bai. Desagertu zenetik Tolosako (Okzitania) plaza batean konorterik

gabe agertu zen arteko hamaika egunetan gertatu zena aztertu behar da batetik, eta bestetik, gorpua agertzen denetik identifikatu arte pasatu zen denboran gertatutakoa ere ikertu beharko litzateke. ETAK berak jakinarazi zuen Anza erakundeko kidearekin Tolosan hitzordua zeukala [apirilaren 18an], eta ez zela agertu. Anzak erakundearentzako diru kopuru bat zeramala ere esan zuen ETAK, eta trena hartu zuela Baionan, Anzaren beraren senideek esana zutena berretsiz. ETaren salaketa gezurtatu zuen gero Rubalcabak, eta desagerketa ETaren arazoa eta asmakizuna zela esan zuen. Garbi dago, hala ere, Espainiako Poliziak argi berdea duela estatu frantsesean nahi duena egiteko, eta [Anne] Kayanakis fiskalak ere beti eman diola sinesgarritasun handiagoa Rubalcabaren bertsioari. Are gehiago, ETaren bertsioa ikertu ere ez du egin. Kurioso da, gainera, orain epaile horrek merezimenduaren domina jaso duelako. Pentsa!

Zer zailtasun izan dituzue liburua idazteko orduan?

Lekuko falta. Guk pentsatua geneukan zeintzukin hitz egin behar genuen, Jon Anza desagertu zenetik gorputegian agertu zen arte jende askok ikusi zuelako, baina ezinezkoa egin zaigu. Hainbat kazetarirekin egon nahi genuen, Tolosako ospitaleko agintariek... baina figura guzti horiek ez daude. Pertsona horietako asko kargutik ere kendu dituzte, eta besteek ez dute ahorik zabalitzen. Jakin bagenekien Kayanakis honek lan handia egin duela arrastoak desagertarazten, Anzaren senideek auzia epaile baten esku uztea eskatu ziotenean ere ez ez zuelako onartu. Pre-soen kolektiboak, Anzaren defentsa abokatuak, eta senideek euren ere esana ziguten ezingo genuela gauza askorik argitu. Horregatik, galdera moduan planteatu dugu izenburua ere, ez daukagulako froga materialik gerra zikina izan dela esateko, baina Anzarena bezalako kasu asko izan dira hemen, eta badakigu nola funtzionatzen duen honek. Guk galderak planteatu ditugu liburuan, ikertu gabe laga diren galderak zerrendatu ditugu. Garbi dago ez dela auzia argitzeko inolako borondaterik egon.

Etxegiña taldekoak eta Mendaroko koplariak bihar irtengo dira santa eskean

Elgoibarko Izarrakoak baserriz baserri ibili dira gaur

Ohitura den legez, gaur, Santa Ageda bezperan, baserriz baserri ibili dira kantuan Elgoibarko Izarrako koplariak. Etxegiña taldekoak eta Mendaroko koplariak, berriz, bihar irtengo dira kantura. Etxegiñakoak 9:00etan batuko dira bolatokian, eta bi taldetan banatuta, kalez kale ibiliko dira kantuan. Bukaeran, Errosario kalean elkartuko dira Ama Birjinari salbea abesteko, eta ondoren, Baltasar elkartearen bazkalduko dute denek elkarrekin.

Mendaron ere bihar irtengo dira santa eskean. Urtero legez, 8:30ean elkartuko dira koplariak udaletxe-ko plazan, eta hiru taldetan banatu ostean, talde bakoitzak bide bat hartuko du. Aranerrekarantz abiatuko dira batzuk, Sahatzu mendirantz beste batzuk, eta Mendarozabalerantz azkenak. Herriko baserri gehienak pasatuko dituzte, eta azkeneko saioa kalean egin ostean, Aizpe elkartearen batuko dira hiru taldeak, elkarrekin bazkaltzeko.



'El título de este espectáculo no es mi madre' antzezlan, hilaren 11n

Sexpeare taldeak *El título de este espectáculo no es mi madre* komedia eskainiko du otsailaren 11n, Herriko Antzokian. Marco hil berri den gizon baten ibileretan oinarritzen da obra osoa. Marco errenkarnazio prozesuan dago, eta horretarako, bizitzan izan den guztiari uko egin beharko dio.

Antzerki tailerra antolatu du Taupada antzerki taldeak

Taupadak antzerki tailerra antolatu du. Urtebeteko tailerra izango da, eta eskolak astelehenetan izango dira, 20:00etatik 22:00etara. Parte hartzeko, ezinbestekoa da euskara maila egokia eta konpromisoa izatea. Otsailaren 11 baino lehen eman behar da izena. Harremanetarako: 653013813 (Larra) edo 656416677 (Eburne).

Elgoibarko Dance & Smile taldekoak fin aritu ziren Aka Dantz lehiaketan



Aka Dantz jokatu zen domekan Elorrioko Arriola antzokian (Bizkaia), kaleko dantzen lehiaketa, eta Elgoibarko Dance & Smile taldeak sekulako erakustaldia eman zuen. Talde gaztea da oso Dance & Smile, baina antolatzaileek jakinarazi dutenez, fin aritu ziren elgoibartarrak. Taldearen gaztetasunak eta freskotasunak "harrituta" laga zituela aitortu dute. Guztira, hogeitau taldek parte hartu zuten Aka Dantz lehiaketan, eta honako webgune honetan daukazue sailkapen nagusia: <http://www.breakonstage.com>.

Elgoibarko dantzariak sasoiko daudela erakutsi dute Lezon



Soinu Zahar Txapelketako bigarren jardunaldia jokatu zen zapatuan Lezon, eta elgoibartarrek emaitza bikainak lortu zituzten. A sailean, hamazazpigarren sailkatu zen June Loidi, eta B sailean, berriz, Alaitz Egañak hirugarren egin zuen. B sail horretan, Leire Moralesek, Maialen Loiolak eta Saioa Marcosek ere parte hartu zuten, eta hamahirugarren, hamazazpigarren eta hogeigarren sailkatu ziren, hurrenez hurren. Hurrengo saioa Beasainen izango da, otsailaren 12an eta 13an.

LANA

ESKAERA

- Emakumea nagusiak zaintzeko prest. Interna edo orduka. Gauzez lan egiteko prest. Papelak ditut. ☎ **699 813 826**
- Neska gaztea nagusiak zaintzeko prest. Interna edo orduka. Papelak ditut. ☎ **619 915 990 / 635 313 375**
- Neska gaztea garbiketa lanak egin edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **610 545 505**
- Mutil gaztea edozein lan egiteko prest. Zerbitzari, sukalde laguntzaile, igeltsero... ☎ **696 450 343 (Kelvin)**
- Gizona pintore lanetarako prest. ☎ **610 017 571**
- Emakumea sukalde laguntzaile, garbitzaile, edo umeak edo nagusiak zaintzen lan egiteko prest. ☎ **608 474 923**
- Emakumea sukalde laguntzaile, edota umeak edo nagusiak zaintzen lan egiteko prest. ☎ **681 178 842**
- Mutil gaztea edozein lan egiteko prest. Zerbitzari, sukalde laguntzaile, igeltsero... ☎ **648 716 291 (Williams)**
- Mutil gaztea edozein lan egiteko prest. Zerbitzari, sukalde laguntzaile, igeltsero... ☎ **649 086 057 (Cristian)**
- Gizona eskaintzen da sukalde laguntzaile, igeltsero, banatzaile edo adinekoak zaintzeko. ☎ **638 344 377 / 943 530 579**
- Emakumea garbiketa lanak egin edo nagusiak zaintzeko prest. Edozein ordutegi. Esperientzia daukat. ☎ **678 972 690**
- Emakume euskalduna adineko pertsonak zaintzeko prest. Erizain laguntzailea, eta esperientziaduna. Arratsaldez, edo pare bat orduz. ☎ **685 729 790**
- Neska eskaintzen da ostalaritzan lan egiteko, sukaldean laguntzeko, garbiketa lanak egiteko edo adinekoak zaintzeko. ☎ **633 671 470 / 943 030 233**
- Emakumea garbiketa lanak egin edo nagusiak zaintzeko prest. Orduka edo interna moduan. ☎ **617 981 037**
- Emakume euskalduna garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **687 114 707**
- Nikaraguako bikoteak nagusiak zainduko litzuzke. Esperientzia eta erreferentzia oso onak. ☎ **618 089 227**
- Gizona nagusiak zaintzeko edo baserrian lan egiteko prest. Esperientziaduna, eta erreferentzia onekin. ☎ **639 783 593**

- Emakume euskalduna garbiketa lanak egiteko edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **626 490 986**
- Emakumea asteburuetan lan egiteko prest. Interna edo orduka. ☎ **646 821 678**
- Emakumea garbiketa lanak egin edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **699 609 190**
- Neska gaztea garbiketa lanak egiteko prest. Egunean pare bat orduz. ☎ **697 735 046**
- Emakumea garbiketa lanak egiteko prest. Egun erdiz. ☎ **638 031 555**
- Emakumea lanerako prest: sukalde laguntzaile, garbitzaile, nagusiak zaintzen... ☎ **608 474 923**
- Emakumea lanerako prest: sukalde laguntzaile, garbitzaile, nagusiak zaintzen... ☎ **681 178 842**
- Emakumea lanerako prest: sukalde laguntzaile, garbitzaile, nagusiak zaintzen... ☎ **608 376 387**
- Mutila edozein lan egiteko prest, edozein ordutan. ☎ **649 086 057**
- Emakumea edozein lan egiteko prest: nagusiak edo umeak zaindu, garbiketa lanak... Esperientziaduna. ☎ **678 972 690 / 943 530 795**
- Emakumea edozein lan egiteko prest: nagusiak edo umeak zaindu, garbiketa lanak... ☎ **695 182 457**
- Neska euskalduna adineko pertsonak zaintzeko prest, egunez edo gauzez. Klinika laguntzaile tituluarekin. ☎ **646 384 681 / 943 748 209**

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUA ETA SALMENTA

- Etxea salgai Urasandin. Hiru logela, bi komun, egongela handia, sukaldea eta trastelekua. Egoera oso onean. Eguzkitsua eta bista onak. ☎ **628 525 471**
- Logela alokatzen da, sukaldea erabilitzeko aukerarekin. Lanean ari diren pertsona arduratsuentzat. ☎ **633 671 470 / 943 030 233**
- Pisia hartuko nuke alokairuan, ahal dela hiru logelatakoa. ☎ **652 446 228**
- Etxea hartuko nuke alokairuan. ☎ **685 212 060**

PARTIKULARRAK

- Hegaldi laguntzaile klaseak ematen dira Bilbon, 18 eta 30 urte artekoentzat. Neskek, 1,65 metroko altuera izan behar dute, eta mutilek 1,70 metrokoa. Lan mundurako aukerak. ☎ **944 793 358**
- LHko eta DBHko klase partikular individualizatuak ematen ditut. ☎ **665 759 858**
- DBHko matematikako klase partikularrak ematen ditut. Talde txikiak. ☎ **943 744 206**

AUTOAK ETA GARAJEAK

- Garaje marraduna alokatzen dut San Roke 5ean. ☎ **943 741 837**

LOKALAK

- Lokala salgai Santa Klaran. Solairu arteko baxua. Araudia betetzen du. Elkarte gastronomiko edo etxea egiteko aproposa. ☎ **943 744 467 / 607 741 238**

BESTELAKOAK

- Artzai txakur alemaniarra eta mastin nahasketako 2 urteko txakurarentzat eme bila gabilta, estaltzeko. ☎ **685 718 414**
- Mikrouhin labea oparitzen dut. ☎ **943 740 938**
- Katua galdu da Basarten. Urta-rrilaren 6an etxetik ihes egin zuen katu siamesak. Arra da, eta ez du lepokorik. Norbaitek ikusi edo etxean hartu badu, deitu dezala, mesedez. ☎ **679 276 164**
- Inork betaurreko batzuk aurkitu baditu, deitu dezala mesedez. ☎ **943 740 268**



II. URTEURRENA

ALBERTO ORTUETA AZKARRETA

*Zure falta sentitzet dut, zure presentzia falta dut,
eta gero eta gehiago sumatzen dut zuk utzitako hutsunea.
Hobea izan zen bizitzaren oroitzapen oso onak ditut.
Eskerrik asko, nire maitea, hori guztiagatik.
Mila muxu.*

Xabier eta Alitxu, Josu eta Aitor eta Aitor txiki zure biloba eta ni, M^a Jesus de Alberto Ortueta.



2009ko otsailaren 4an hil zen. Haren oroimenez II. urteurreneko meza izango da, zapatuan, otsailak 5, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokan. Joango zaretenoi eskerrak alde zurretik.



• Zorionak, **Nahia**, zapatuan 5 urte egingo dituzulako. Patxo bat familiakoen partez.



• Zorionak, **Julen**, igandean 8 urte egin zenituelako. Ondo ibili gaur lagunekin. Etxekoan partez, muxu handi bat.



• Zorionak, **Ander**, asteazkenean zure urtebetetzea izan zelako. Muxuak, anaia Gorkaren eta etxekoan partez.



• Zorionak, **printzesa**, hilaren 9an 6 urte egingo dituzulako. Gurasoen eta bereziki, Uxuearen partez.



• Zorionak, **Nerea**, otsailaren 5ean 4 urte egingo dituzulako. Familiako guztien partez.



• Zorionak, **printzesa**, igandean 6 urte egingo dituzulako. Familiakoan, aita eta amaren, eta Aneren partez.



• Zorionak, **Naroa**, 7 urte egin dituzulako. Segi orain bezain jator. Muxu bat etxekoan eta bereziki, Galdarren partez. Ondo pasa!



• Zorionak, **Unax**, larunbatean 5 urte beteko dituzulako. Ondo pasa eguna, muxu handi bat familia osoaren partez.



• Zorionak, **Jokin**, bitxito, astelenean 2 urte beteko dituzulako. Muxu bat etxekoan, eta bereziki Maddiren partez.



• Zorionak, **Ane**, otsailaren 7an 3 urtetxo egingo dituzulako. Muxu pila bat etxeko denon partez.

Erretratu bakarrek agurra: 3 euro. Argazki bikoitza: 5 euro. Hirukoitza: 7 euro. Hiru lagunetik gorako taldeak: 10 euro.
 Norbait zoriondu nahi baduzu, argazkia eguazten eguerdia baino lehen ekarri behar duzu. BARREneko bulegora 12:00ak baino lehen, edo barren@elgoibarkoizarra.com e-postara bidali.

MERKATU TXIKIKO OHARRA

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira.
Prezioak: Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 12 euro (alokairua), 18 euro (salmenta).
Autoak saltzea: 12 euro. Bestelakoak: 6 euro.
 Iragarkiari erretratua jarriz gero, bost euro gehiago ordaindu behar dira.

Outlet Terpi

Astelehenean, otsailak 7,
ZABALDUKO dugu.


Aste honetan dena
10€ 15€ 25€



Ordutegia:
 Goizez 9:30 - 12:30
Arratsaldetan ITXITA!

San Bartolome, 3 - Tel.: 943 740 815

Lanbroa



**Gosariak
 Pintxoak
 Bokatak
 Plater konbinatuak**

Astelehenetik ostiralera irekita goizeko 6etatik aurrera.
 Larunbat eta jaiegunetan goizeko 8etatik aurrera.

Pedro Muguruza, 5 - Tel.: 943 74 38 11 / 943 74 08 06

4 barixakua

Santa eskea

14:30 Santa eskea baserriz baserri

Plaza Handian batuko dira Elgoibarko Izarrarekin irtengo direnak, eta ahalik eta baserri gehien bisitatuko dituzte.

Santa eskea

15:30 Ikastolako umeen kalejira
Ikastolako ikasleek, umeek eta gurasoek kalejira egingo dute Santa Agedaren omenez. (Euria egiten badu, Ikastolan bertan egingo dute).

5 zapatua

Santa eskea

8:30 Mendaroko santa eskea
Udaletxeko plazan batuko dira eta hiru taldetan banatuta arituko dira kantuan.

Santa eskea

9:00 Etxegiña taldekoen kalejira
Etxegiña tadekoak Bolatokian batuko dira, eta herriko auzo eta kaleak koplaturiko dituzte.

11 barixakua

Antzerkia

20:30 'El título de este espectáculo no es mi madre'
Sexpeare taldeak antzeztuko du, Herriko Antzokian.



Bazkide izan nahi duzu?

Urtarrietik abuztura bitarteko kuota 30€.
Familia ugariak,
%30eko deskontua.
HH5-LH6ko
haur guztientzat.

Ostirala:

Bergarako gazteak etorriko dira gure gaztelekua bisitatuzera 18:30etik aurrera.

Igandea:

sms piropoak aurkezteko azken eguna.



B
BARREN
astekarian
943 743 704

Jarri ezazu zure publizitatea

OKINDEGIA

6 domeka **IBARRENEA**

FARMAZIAK (24 orduz)

- 4 Yudego
- 5 Zabaleta
Goizez: Etxeberria (Erros.)
- 6 Zabaleta
- 7 Etxeberria (Errosario)
- 8 Ibañez
- 9 Garitaonandia-Bidasolo
- 10 Etxeberria (Santa Ana)
- 11 Fernandez

Fernandez

Herriko enparantza 4,
Garagartza (Mendaro) Tel: 943 756 142

Ibañez -Rekalde, 1 (Soraluze)
Tel: 943 751 638

Zabaleta

Kalebarren, 9 (Soraluze)
Tel: 943 751 384

ZINEA

«The town: ciudad de ladrones»

4, barixakua: 22:15
5, zapatua: 19:00/22:15
6, domeka: 19:00
7, astelehena: 21:30

«Mystikal»

(Euskaraz)
6, domeka: 16:30

«Tulpan» (Ongarri zinekluba)

10, eguna: 21:30



«The town: ciudad de ladrones» Estatu Batuak, 2010. Zuz.: Ben Affleck. Akt.: Ben Affleck, Rebecca Hall, Jon Hamm, Jeremy Renner. 120 min. Banku lapur bat banku bateko zuzendariarekin maiteminduko da. FBIko agente bat, aldi berean, emakume berberaz maiteminduko da.

«Tulpan» Kazakhstan-Erusia-Polonia-Alemania-Suitza, 2008. Zuz.: Sergei Dvortsevoi. Akt.: Tolepbergen Baisakalov, Odas Besikbasov, Samal Esjamova, Askhat Kutxentxerekov. 100 min. Soldaduska amaitu ostean, Asa gaztea jaioterrira itzuliko da, Kazakhstango estepara. Han, arrega zaharra eta haren senarra artzaintzaz bizi dira. Eta haiengandik ikasiko du ogibide horretan aritu nahi badu emakume bat aurkitu beharko duela.





KONFIANTZAN EN CONFIANZA



ikastola

elgoibar ikastola

elgoibar@ikastola.net
943 744441
www.elgoibarikastola.eu



2 0 1 0

aurre-matrikulazioa
urtarrilaren 31tik
otsailaren 11ra



Haur hezkuntza



Lehen hezkuntza



Bigarren hezkuntza




Elgoibarko Herri Eskolako Ate Ireki eguna: Otsailak 5

AURREMATRIKULAZIOA

2011 - 2012

Haur, Lehen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

URTARRILAREN 31tik OTSAILAREN 11ra



Elgoibarko Herri Eskola

Kalamua, 8

Tel.: 943 74 08 79

E-posta: 012777aa@hezkuntza.net



baikara
Guzokiko ikasleak
Guzokiko irakasleak
Guzokiko irakasleak



EUSKO JAURLARITZA

HEZKUNTZA
UNIBERTSITATE eta
IKERKETA SAILA



Elgoibar Arreiturre BHI

San Roke, 11

Tel.: 943 748 397

E-posta: www.elgoibarbhi.net